



MADDI SOROIA

**Baleren
Bakaikoa
Azurmendi**



EHUKO
IRAKASLEA,
EKONOMIALARIA

Finantzak *versus* produktibitatea

AZKEN URTEETAN finantzak izugarri handitu dira eta bide horretatik jarraituko omen dute. *The Guardian* egunkariko artikulu batek zioenez, 2050ean Britainia Handiko BPG baino bederatzi aldiz handiagoa izango omen da finantza erakundeentzako tituluen balioa. Baina aurreikuspenak besterik ez dira. Hala ere, jadanik finantza sektorearen hazkunde hori nahiko nabarmena da AEBetan. Izan ere, bere finantza sektoreen zama ekonomikoa 1980tik 2006ra ia bikoiztu da, BPGren %4,9tik %8,3ra igo baita.

Hazkunde horrek zer ekarriko dio produktibitateari, ordea? Begi bistakoa da, gauza onik ez. Krisialdi honetan ikusi den bezala, finantza sektoreak ekonomia erreala atzetik eraman baitu. Gainera, kontuan izan behar da zer dirutza eraman duen sektore espekulatzailerik horrek: Espainiako Estatuko finantza erakundeek 87.000 milioi euro irentsi dute; Bankiak bakarrik ia 23.000 milioi euro! EAEko aurrekontuekin alderatzeko: berau 12.000 milioi eurokoa da.

Zenbait ekonomialariren arabera, finantza erakundeak ugaritzen baldin badira aukera gehiago egongo da aurrezkiak bideratzeko eta enpresek kreditu merkeagoak eskuratzeko. Hala ere, ikerketek beste zerbait diote

Datu horiek ikusita, ez dago zalantzarik, desbideratutako dirutza horrek guztiak ekonomia errealarik kalte nabaria egin diola, sektore ekoizkorrean erabili ordez bankuen zuloak estaltzeko erabili direlako. Beraz, sektore ekoizkorra finantza baliabide urriagoekin aurkituko da, inbertsio erreala ekoizkorren kaltetan.

Gainera, finantza erakundeentzako baliabideak handitu ahala, hauen kredituek ere gora egin dute, baina kasu gehienetan diru hori eraikitzen bideratzen da non produktibitatea oso apala den. Beraz, ez dio ekarpen handirik egin produktibitate orokorrari, hau da, ekonomia errealarik.

Aldiz, zenbait ekonomialariren arabera, finantza erakundeak ugaritzen baldin badira aukera gehiago egongo da aurrezkiak bideratzeko eta enpresek kreditu merkeagoak eskuratzeko. Hala ere, ikerketek beste zerbait diote. Izan ere, 20 estatutan aztertu da produktibitatearen eta finantzen arteko korrelazioa eta emaitza alderantzizkoa izan da: herrialde bateko finantzak zenbat eta gehiago handitu, produktibitatearen hazkundera xumeagoa da finantzen bilakaera mantsoagoa duten herrialdeetan baino.

Bestalde, kontuan izan behar da finantza sektoreak beste sektore ekonomikoekin lehiatzen duela eskulan trebatua kontratatzeke garaian. Uste denez, finantza erakundeek kontratatzen dituzte langile trebatuenak edo buru argienak, eta gainerako sektoreek bigarren mailakoak kontratatzen dituzte. Izan ere, matematikari eta fisikari jakintsuenak eredu matematiko konplexuak sortzeko erabaten omen dituzte *hedge fundek* eta inbertsio bankuek, produktibitatea sustatuko luketen sektoreen kaltetan. Hala ere, argumentu hori nahiko ahula da kontuan izanda teknikari andana ateratzen dela unibertsitateetatik finantza sektorean denak enplegatu ahal izateko.

Abagune horretan, alde bateko eta beste argumentuak egon badaude, baina egia da, Espainiako kasuan, 87.000 milioi euro ikerketarako eta garapenerako erabili izan baziren, produktibitate maila garaigoa izango genuela eta beraz, soldatak ez genituen hainbeste murriztu beharko lehiakorragoak izateko nazioarteko merkatuetan. Baina tamalez, alderantzizko egoeran gaude. Horren adibide bat Bilboko ESS zentroa da, non aurreikusita zegoen 180 milioiko inbertsioa, baina aurrekontu murrizketak direla eta, aurrekontu hori erdira jaitsi duten. Inbertsio hori Jaurilaritza eta gobernu zentrala egitekoak dira, erdibana.

Horrelako neurri murriztaileek produktibitateari ez diote inolako mesederik egingo.

Okerreko bidetik goaz! ■

